

KARABIGANEKO KIROLGUNEKO **ZERBITZUAREN ARAUDIA**

Udal kirol instalazioak erabiltzeko baimena duten entitate, talde eta/edo pertsona fisiko guztiak behartuta daude arau hauek betetzera.

Esparru hauen erabilera egokia bermatzea da arau honen xedea, guztion artean elkarlanean aritzeko, instalazioak funtzionamendu egoera hobereanean mantendu daitezzen.

I.- ORDUTEGIAK:

- Astelehenak eta asteazkenak 17:00etatik 21:00etara
- Astearteak eta ostegunak 16:30etatik 21:00etara
- Ostiralak 19:00etatik 21:00etara
- Larunbatak 9:30etatik 13:30etara
- Igandeak 10:00etatik 14:00etara

II.- SARBIDEAK:

1. Kirol arearen sarbidean saihestu egingo da motoak, ibilgailuak, bizikletak, eta abar aparkatzea, eraikinaren sarbidean, bai atean eta bai arrapalan eragozpenik ez sortzeko.
2. Eraikineko sarbidearen ateetan, halletan, eskaileratan eta korridoretan, eroso zirkulatzea oztopatzen edo galarazten duten multzoak sortzea saihestu egingo da beti.
3. Larrialdietako ateen zabalik egon beharko dute jarduerak hasten direnean, eta itxita amaitzen direnean. Ekipamenduaren arduradunaren erantzukizuna izango da larrialdietako ateen zabaltzea eta ixtea.

III.- OROKORRA:

1. Kirol esparrua erabiltzeko Berangoko Udalaren berariazko baimena duten taldeak eta erabiltzaileak bakarrik sartu ahal izango dira. Baldintza hori alde batera utzita, instalazioko atezainak sartzeko baimena ukatu ahal izango die baimendutako kirolariei eta klubei, eta baita jarduera bertan behera utzi ere, jarduera hasi eta gero, ohikoa ez den egoera bat dagoela uste badu (adibidez: hezetasuna pistan, tantak, hondaketak jolasgunean...).
2. Instalazioen arduradunen oharrak eta eskakizunak bete beharko dituzte erabiltzaileek, eta arau hauek betetzera behartuta daude.
3. Kirol esparruko edozein elementuren kontra edo beste erabiltzaileen kontra, jokabide desegoki eta/edo bandalikoak egiten badira, inplikaturako pertsona edo pertsonak kanporatu egingo dira berehala.
4. Edozein erreserba baliorik gabe uzteko edo kentzeko eskubidea gordetzen du udalak, beharrezkoa izanez gero, eta erreserba egin duen pertsonari edo/eta taldeari ahalik eta arinen jakinaraziko zaio.
5. Ezin da animaliarik sartu, itsu-txakurrak izan ezik.
6. Instalazioaren barruan ezin da pipitarik jan, eta ezin da sartu beira eta/edo kristalezko ontzirik, poterik edo bestelako edozein ontzi mingarririk.
7. Ezin da kirol gunea zikin dezakeen janaririk jan.
8. Ezin da erre, eta ezta alkohol edaririk hartu ere.
9. Instalazioa ezin da erabili, ezarrita ez dauden beste helburu batzuetarako.
10. Ezin da ekintza desegokirik egin, jokalari, arbitro edo instalazioaren erabiltzaileen aurka.
11. Segurtasuna dela eta, materiala ezin da lekuz aldatu, instalazioaren arduraduna baimendu eta gainbegiratu gabe.
12. Larrialdietako irteerak beharrezkoak diren kasuetan baino ez erabiltzea gomendatzen da.

13. Eguna amaitzean kentzen ez diren gauzak eta instalazioko beste lekuetan galdu direnak, horretarako bereziki egokituko den leku batean gordeko dira. Instalazioaren arduradunari galdetu.

BETEBEHARRAK

1. Udal kirol instalazioetara sartzeko, araudi honetan jaso diren arau guztiak onartu behar dira.
2. Udal kirol instalazioak erabiltzeko interesa duten guztiek, erabiltzeko baimena eskatu beharko dute, horretarako ezarrita dagoen prozeduraren arabera, eta dagokion prezio publikoa ordaindu, ezarrita dagoen moduan eta epearen barruan.
3. Kasu bakoitzerako ezar daitezkeen salbuespenak kontuan izanik, udal instalazioak erabiltzeko lagapenean ez da sartzen kirol materialaren hornidura eta erabilera. Hori dela eta, erabiltzaileek ekarri beharko dute materiala, eta materialaren ezaugarriek bete egin beharko dituzte kirol modalitate horretarako ezarrita dauden arauzko baldintzak.
4. Erabiltzaile guztiek zorrotasunez bete beharko dituzte edozein kirol instalaziotarako ezarrita dauden arauak. Instalazioen arduradunek arauak betetzeko eskatuko dute, eta indarrean dauden xedapenak zuzenean bete eta betearazi behar dituzte, horren arduradunak baitira.
5. Udal kirol instalazioen erabiltzaileen jarrerak begirune eta errespetuzkoak izango dira beti besteekiko eta instalazioen arduradunekiko. Instalazioen arduradunen eta erabiltzaileen arteko harremanei dagokienean, arduradunek ematen dituzten jarraibideak eta oharrak bete behar dituzte erabiltzaileek, instalazioen ordena onari eta funtzionamenduari buruz eta material eta zuzkidurak prestatzeari eta erabilerari buruz.
6. Arau hauek betetzen ez badira, edo ekintza bandalikoak eta desagokiak egiten badira, araudi honetan aurreikusitako zigorrak jarri ahal izango dira, eta litekeena da kaltetutakoa konpondu, berria jarri eta/edo ordaindu behar izatea.
7. Klubetako edo Kirol Elkarteetako erabiltzaileen kasuan, klubak edo Kirol Elkarteak izango dira beren kideen jokabidearen ordezkotzat erantzuleak.

ERANTZUKIZUNAK

1. Erabiltzaileek egoera ezin hobean utzi beharko dituzte erabilitako instalazioak, hurrengo erabiltzaileentzat. Bestalde, baimendutako jardueraren ondorioz, instalazioak erabiltzean gertatzen diren kalteen erantzukizun osoa eta zuzena euren gain hartuko dute erabiltzaileek, baita lokaleko edo eraikineko beste gelek eta pertsona fisikoek izandako kalteena ere.
2. Egindako erabileraren erantzule zuzena, baimenaren titularra izango da, ordezkotza egiaztatzen ez badu. Ordezkotza egiaztatzen badu, ordezkatuari egokituko zaio erantzukizuna.
3. Adingabeekin doazen gurasoak edo helduak izango dira adingabeen segurtasunaren arduradun bakarrak. Pertsona berberak izango dira adingabeen erantzuleak, adingabeek udal kirol instalazioen funtzionamendu-arauak betetzen ez ba dituzte.

IV.- ALOKAIRUA:

1. Berangon erroldatutako edozein pertsonak alokatu ahal izango du kirol instalazioa. Horretarako, eskaera-orria zuzen bete beharko du eta egingo diren jarduerak, nahi den ordutegia eta parte hartuko duten pertsonen kopurua adierazi.
2. Eskaera egiten den aste bererako egingo da erreserba (aste horretako asteleheneratik igandera). Astelehenerako erreserbak aurreko asteko ostiraletik aurrera egingo dira, ekipamenduaren irekiera ordutegian.
3. Erabiltzaile bakoitzak gehienez ordubetez erreserbatu ahal izango du instalazio bat, egun bakoitzeko, baldin eta instalazioa libre badago.
4. Instalazio baten erreserba telefonoz edo pertsonalki egin ahal da, finkatu den ordutegiaren barruan. Telefonoz egindako erreserbak bi egun baliodunetz mantenduko dira. Epe hori igaro ondoren, eskaini egingo zaio publikoari berriro. Erreserbatu den instalazioa erabili ezin bada, 24 ordu lehenago jakinarazi beharko da.
5. Eskatutako zerbitzuaren zenbatekoa ordaintzen den unetik aurrera, erreserba irmoa izango da. Une horretan, ekipamenduaren arduradunak tiket bat emango du, eskatutako egun, ordu eta instalaziorako. Tiket horretan erreserba irmoa dela adieraziko da. Tiketean agertzen diren datuak egindako eskaerarekin bat ote datozen begiratu beharko du erabiltzaileak.

6. Erabiltzailea instalazioan sar daitekeela egiaztatzen du tiket horrek. Tiketa galduz gero, horren kopia eskatu ahal izango da, behar den bezala egiaztatuz.
7. Instalazio baten erreserba pertsonala eta besterenezina da. Erreserbaren titularra ez den beste pertsona batek erabiltzen bada, instalazioaren erreserba formalizatu denari zigorra ezarriko zaio.
8. Instalazio baten erreserba bertan bera utzi nahi bada, horren tiketa aurkeztu beharko da, eta titulartasuna egiaztatu. Gutxienez, 24 ordu lehenago baliogabetzen dira. Epe hori igarota baliogabetzen bada, zigor moduan ezin izango da instalaziorik erreserbatu astebetetz.
9. Material eta jantzi egokiekin baino ezin izango da erabili instalazioa.
10. Instalazioa behar ez den moduan erabiltzen duena Berangoko Udalaren instalazio guztiak erabiltzeko gaitasunik gabe geratuko da, egingandako arau-haustearen arabera.
11. Aldagelak erabili ahal izateko, kirol instalazioak erabili edo kirol jarduera bat egin beharko da.
12. Aldagelak erabili ahal izateko, behar bezala erabili beharko dira.
13. Berangoko Udalak ez du inolako erantzukizunik izango aldageletan gordetako objektuen gainean, galtzen edo lapurtzen badira.

V.- KANTXA:

1. Nahitaezkoa da kirol jantzi eta oinetako egokiak erabiltzea.
2. Kantxan kalte egin dezaketen elementuak ezin dira sartu, kirola egiteko izan edo ez izan arren.
3. Ezin da edaririk edo janaririk sartu kantxaren gunean, kirolariek hartzen dituztenak izan ezik (ura eta edari isotonikoak).
4. Jardueran erabilitako kirol materiala batzea eta bere lekuan jartzea gomendatzen da, instalazioaren arduradunak, entrenatzaileak edo begiraleak esandako lekuan.

5. Jarduera egin baino lehen beroketa ariketak egitea eta, jarduera egin eta gero, luzatze-ariketak egitea gomendatzen da, lesioak edo arazo fisikoak prebenitzeko.
6. Kirol instalazioetan bizikletak, ziklomotorrak, patinak, monopatinak, etab. sartzea debekatuta dago, berariaz horretarako diren instalazioetan sartzen ez badira, edo programatutako jarduerak horretarako berariazko baimenik ez badu.

VI.- ROKODROMOA ETA BOULDERRA:

1. Instalazioaren zuzendaritzak ezarritako ordutegian baino ez dira erabiliko, erabiltzailearen ardurapean.
2. Instalazioan sartzeko, nahitaezkoa da identifikatzea.
3. Boulderraren gunea gehienez ere 4 eskalatzailek erabil dezakete aldi berean.
4. Boulderra erabili ahal izateko, eskaladarako material egokia erabili beharko da, CE UIAA arauaren arabera homologatuta.
5. Nahitaezkoa da kaskoa erabiltzea.
6. Nahitaezkoa da grigria eta, segurtasun korapilo bezala, zortzia erabiltzea.
7. Nahitaezkoa da aseguru guztiak mosketoiez eustea.
8. Erabiltzaileak ipinita aurkitzen badu sokaren bat, nahitaez eskalatu beharko da sokarekin goitik edo Top Rope.
9. Adingabekoek boulderra erabili ahal izateko, nahitaezkoa da gurasoek/tutoreek baimena eta erantzukizun-salbuespena ematea, erabili baino lehen.
 - 14 urtetik beherakoek: baimena badutela egiaztatu beharko dute. Halaber, arduradun heldu batekin erabili beharko dute.
 - 14 eta 18 urte bitarteko adingabekoek: baimena besterik ez dute aurkeztu behar izango.
 - Ez dago baimenduta magnesioa bakarrik erabiltzea.
10. Ezin izango da motxilarik utzi rokodromoaren behealdean.
11. Erabiltzaileak edozein arazo edo akats ikusten badu rokodromoan, instalazioko zuzendaritzari jakinarazi beharko dio.

12. Berangoko Udalak ez du erantzukizunik bere gain hartuko, baldin eta istripu edo lesioak gertatzen badira, instalazioa erabiltzeko arau hauek ez errespetatzearen ondorioz.
13. Instalazioa gaizki erabiltzen duenari, zigor bat ezarriko zaio, eta Berangoko udalaren udal instalazio guztiak erabiltzeko gaitasunik gabe geratuko da ikasturte osoan.

VII.- KIROL MATERIALA:

1. Peto zenbakidunak eta baloi bat emango zaizkie taldeei, hala eskatzen badute. Horretarako, taldearen ordezkari baten txartel bat eman beharko dute.
2. Materialaren mailegua eskatzeko beharrezkoa da instalazioa erreserbatuta izatea eta tiketaren bitartez egiaztatzea. Erreserba barik, materiala maileguan uzteko, instalazioa libre egon beharko da.
3. Materiala emateko beharrezkoa izango da NAN edo pasaportea gordailuan uztea borondatez.
4. Erreserbatutako ordua hasi baino 15 minutu lehenago ematen da materiala, erreserbatutako ordutegi eta instalazioan erabiltzeko beti.
5. Petoak edo baloiak galduz gero, horiek hartu dituen arduradunak birjarri beharko ditu ahalik eta arinen. Berriz jartzen ez badira, zigor bat ezarriko da eta Berangoko Udalak antolatutako jarduera guztietan parte hartzeko gaitasuna galdu egingo da denboraldi osorako.

VIII.- ALDAGELAK:

1. Instalazioa erabiltzeko emakida duten klubak eta/edo taldeak, teknikarien kidegoa eta/edo irakasleak baino ez dira sartuko aldageletara. Bestalde, arbitroak lehiaketa ofizialean sartu ahal izango dira eta, puntualki, emakida duten taldeetako Zuzendaritza Batzaren kideren bat, behar bezala egiaztatzen badu.
2. Aldagelak erabiliko ez dutenek ez dute sartzeko baimenik izango, egoera edo adinagatik autonomoki janzteko edo erantzteko gai ez direnen laguntzaileak ez badira.
3. Erabiltzeko erreserbatu den ordua hasi baino 15 minutu lehenago sartuko behar da aldageletara, eta 60 minutu lehenago lehiaketako jarduera zehatzak badira (partidu ofizialak).
4. Umeak ezin dira puntualki sartu, inola ere ez, taldeko entrenatzailea edo arduraduna ez badago instalazioan. Salbuespen moduan, 9 urtetik beherako umeekin lantzen diren kirolen kasuan, baimendu egingo da heldu bat umeekin aldageletara sar dadila, horren ardura duen entitateak baimena emanaz gero. 9 urtetik gorako umeen

taldeak, entrenatzaileen aurrean baino ez dira sartuko. Arau honen inguruko egoera bereziak Berangoko udalak baloratuko ditu puntualki. Aldagelak adingabekoen taldeek erabiltzen dituztenean, nahitaez egon beharko da heldu bat instalaziotik atera arte. Debekatuta dago korridoreetan, komunetan eta, oro har, aldagela ez den beste edozein lekutan aldatzea.

5. Kirolariak pistako jarduera amaitzen dutenean, gehienez ere 25 minutuko epea izango dute aldageletatik irteteko.
6. Ez dago baimenduta bizarra moztea, depilatzea, azazkalak moztea edo antzerakoak egitea.
7. Aldagelak erabiltzeko eta emateko erabakia, instalazioaren arduradunak hartuko du; horrela, erreserbatu zaion tokia erabiliko du erabiltzaile bakoitzak.
8. Dutxan txankletak erabiltzea gomendatzen da.
9. Poltsak, motxilak, jantziak eta bestelako material pertsonala dagokien aldageletan uztea gomendatzen da.
10. Lokaztutako bota edo kirol-oinetakoekin ezin da eraikin nagusira edo aldageletara sartu.
11. Aldagelak erabili ahal izateko, behar bezala erabili beharko dira: txorrotak itxita daudela baieztatu, garbiketa zaindu, akatsak jakinarazi, etab. Bereziki, botak eta kirol-oinetakoak ez dira aldagelan garbituko.
12. Berangoko Udalak ez du inolako erantzukizunik izango aldageletan gordetako objektuen gainean, galtzen edo lapurtzen badira.
13. Aldagelak erabili ahal izateko, kirol instalazioak erabili edo kirol jarduera bat egin beharko da.

IX.- HARMAILA:

1. Ezin da publikoa gogaitaraz dezaketen baloiak edo bestelako materialak erabili.
2. Publikoa jesarrita egon dadila gomendatzen da, pertsona guztiek eragozpenik gabe ikus dezaten.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Araudi honetako aginduen aurka doazen edo bertan jasotakoarekin bat ez datozen udal xedapen guztiak indargabeturik geratzen dira.

Araudi honetan aurreikusi gabekoei dagokienez, berriz, toki jaurbideari buruzko arau orokorren arabera jokatzeko da.

AZKEN XEDAPENA

Araudi honen testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik hasita, hamabost egun balioduneko epea igarota jarriko da indarrean araudi hau.